MARTXOAK 8
EMAKUMEAREN EGUNA
USTEZKO
BERDINTASUNARI
aurre egin
steilas
www.steilas.eus

Ustezko berdintasunari aurre egin

SARRERA

Ukaezina da azken mendean, eta bereziki azken hamarkadatan, aurrerapauso handiak eman ditugula genero berdintasunari dagokionez. Hori dela eta, gaur egungo gazteen artean, beraien familietan edo irakasleen artean inkesta bat egin ezkero ziur dakigu zein litzateke erantzuna. Alegia, emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna dagoeneko lortu dela. Edonola, ez dugu gehiegi arakatu behar baieztapen hau errealitatetik oso urrun dagoela konturatzeko.

Hezitzaileak garenok adi egon behar dugu gai honekin, guk geuk hausnartzen jarraitu behar dugu baina baita gure ikasleak hausnartu dezaten sustatzen, ezinbestekoa baita gure ikasleak egunero eremu guztietan errepikatzen diren irudiak identifika ditzaten. Irudiak non emakumeak objektu gisa irudikatzen diren, non politikari, kazetari eta fededun gizonak, besteak beste, beldurrik gabe gutxiesten, iraintzen, eta egin beharrekoa azaltzen dieten heteronorma eta feminitate eredu hegemonikoetatik ateratzen diren emakumeei. Egungo jendarteak iraganeko mendeetako estereotipo berak transmititzen ditu, non emakumeen bizitzan nahitaez betebehar diren eginkizun batzuk aurreikusten diren.

Jendeak sinesten duen ustezko berdintasun hau salatzea ezinbestekoa da. Egun, berdintasuna lortu dela ezeztatzen duten datu ugari izan baditugu eta. Besteak beste, emakumeok zailtasun gehiago ditugu lan munduan sartzeko formakuntza sendoagoa izan arren, emakumeontzat zailagoa da zuzendaritza karguetara iristea (%10 besterik ez), gure soldatak baxuagoak dira gehienetan (%17 gutxiago Estatu Espainolean), sarritan soilik gure irudiarengatik baloratzen gaituzte, zaintza eginkizunak betetzen ditugu, baita jendarteak gutxien baloratzen dituen beste zenbait eginkizun ere, gure bikote edo bikote ohiak erailtzen gaituzte eta, jendeak sinetsi ala ez, etabar luze batekin jarraitu genezake.

Hori guztia dela eta, berdintasunaren ilusio faltsu hau arriskutsua da, jendartea immobilizatzeaz gain errealitatea zuzena dela sinestarazten baitie belaunaldi berriei. Berdintasun egoeratik abiatzen garela pentsarazten die. Hortaz, gure helburuak ez lortzearen ondorio guztiak gure gain erortzen dira, pisu horrek norberaren auto-estiman dakarren ondorio guztiekin. Eta are okerrago, pentsamendu honek ez dagoela borrokatzen jarraitu beharrik sinestarazten die, ez baitago ezer egiteke.

Unitate honen bitartez gaia ikastetxean lantzera gonbidatzen zaituztegu. Zenbait ideia eta ekintza elearazten dizkizuegu zeinetan komunikabideak eta jendarteak orokorrean transmititzen dituen irudikapen estereotipatuak baita jendarteak eta emakumeak bereziki bete beharreko rolak salatzen diren. Honen bitartez, gizon eta emakumeen arteko berdintasun erreala lortzeko bidean aurrerapauso bat gehiago ematen lagundu nahi zaituztegu.

Ustezko berdintasunari aurre egin

ABIAPUNTUAA

Abiapuntu giza steilasen kartela proposatzen dugu. HH eta LHn “Enperadorearen traje berria” ipuina ere erabil daiteke eta BHn “Irudi distortsionatuak” jarduera.

HELBURU OROKORRA

Gizon eta emakumeen arteko berdintasun erreala lortzeko dauden oztopoei buruz gogoeta egitea, jendartean dauden egoera eta estereotipo desberdinak aztertuz, hauek ikasleek norberaren garapenean zein jendartean orokorrean eta emakumeengan bereziki, duten eraginaz ohartzeko.

HELBURU DIDAKTIKOAK

- Ogibide, aktibitate eta eguneroko bizitza aztertzea emakume eta gizonen arteko berdintasun eta desberdintasunaz kontzientzia hartzeko.
- Emakumeen eta gizonen bizitza baldintzatzen duten faktore desberdinei buruz hausnartzea.
- Jendartearen eragina zein estereotipoak aztertzea, bakoitzaren alde baikor eta ezkorrak azaleratuz, gizon eta emakumeen arteko berdintasun erreala lortzeko.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko existitzen diren oztopoaz aztertzea, haietaz ohartzeko eta kontra borrokatu ahal izateko.
- Orain arte eman diren lorpen zein hobekuntzaz ohartzea, positiboki baloratuz, atzerapenak ekiditeko.
- Ikasleen auto-estimua era aktiboan sustatzea, beraien garapen psikosoziala indartuz, erabakiak hartzeko gaitasuna izateko.
- Gaitasun sozialak landu (bai/ez esan argudiatu, eskatu, nahia adierazi …), horretarako behar diren egoerak eskainiz, libre izaten bizitzen ikasteko.

OINARRIZKO GAITASUNAK

- Gizarterako eta hiritartasunerako gaitasuna.
- Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna.
- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna
- Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna

EDUKIAK.

- Estereotipoak
- Ipuinak
- Etxeko lanaren banaketa
- Berdintasun legea
- Lan munduarekin lotutako kontzeptuak: lan sariak, pentsioak, langabezia, zaintzak,...
- Pelikula eta bideo desberdinen ikuskapena
- Informazioaren bilaketa selektiboa.
- Adostasunetara iristeko prozeduren garapena.
- Giza garapenerako gizonen eta emakumeen ekarpenen azterketa.
- Emakumeen egoerei buruzko sentsibilizazioa.
- Elkar lanerako eta lankidetzarako jarrera.
- Hainbat gaitasun sozial.
- Irizpide kritikoz jokatzeko ahalmena.
- Emakumeei egokitzen zaizkien rolak.
- Berdintasunezko harremanak ezartzea.

JARDUERAK

GAIAREN AURKEZPENA ETA MOTIBAZIOA:

Ustezko irudiak

HAUR, LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZA

Materialak: steilas-eko kartela, Eranskin I, arbela.

Denbora: 1-2 saio.

Taldekatzea: Banaka, talde txikia, talde handia.

Lehenengo saioa:

Garapena:

1. Irakasleak **steilas**eko kartela erakutsi eta ikasleei ea zer ulertzen duten galdetuko die. (Ideien zaparrada erabil daiteke dinamika bezala, edo borobilean eserita bururatzen zaiguna banan banan esan …)
2. Ideia nagusiak jasoko dira atentzioa gehien eman duten gauzetan indarra jarriz. (emakume bat eta gizon bat agertzen dira ispilu baten aurrean, zer egiten ari dira eta zein den haien isla. Isla eta errealitatea ez da berdina.)
3. Hasteko atentzioa ustezko hitzan eta leloan jarriko da
   - Zein da ustezkoaren esanahia kasu honetan?
   - Sinonimoak ezagutzen al dituzu?: ispilatze, ameskeria, irudikeria, ilusioa, irudipena, begitazioa, lilura …
4. Ikasleei kasu honetan ustezkoaren esanahiko sinonimoak hiztegian begiratzeko eta bakoitzarekin esaldi bat edo eredu bat jartzeko eskatuko zaie.
5. Esaldiak edo ereduak komunean jarriko dira eta saioaren ondorioak aterako dira:
   - Hitz hauek guztiak modu sinbolikoki, metafora bezala, noiz erabiltzen dira, zertarako?
   - Zer esan nahi du ustezko berdintasunak?
6. Bukatzeko atentzioa ispiluan jarriko da
   - Zergatik ispiluan agertzen diren irudiak desberdinak dira?
   - Zuen ustez zein izango da ustezko irudia?

(Ispiluek errealitatea den bezala islatzen dute baina batzuetan ez gara errealitate hori ikusteko gai. Hori da hain zuzen ere kartelaren esanahia. Egun, berdintasuna lortu denaren irudi faltsua dugu, baina errealitatea oso desberdina da: emakumeek zailtasun gehiago dute lan munduan sartzeko, emakume gutxik okupatzen dituzte zuzendaritza karguak, soldatak baxuagoak dituzte, sarritan soilik irudiarengatik baloratzen dituzte, zaintza eginkizunak betetzen dituzte, baita jendarteak gutxien baloratzen dituen beste zenbait eginkizun ere)

Bigarren saioa:

LEHEN HEZKUNTZA: Enperadorearen traje berria

Garapena:

1. Irakasleak **steilas**eko kartela ikusgai jarriko du
2. “Enperadorearen traje berria” ipuina proiektatu edo irakurriko du (https://youtu.be/In Guma-ih4)

3. Ondoren hurrengo galderei erantzungo diote:
   - Zer ikusten du enperadoreak traje berria jantzita ispiluan begiratzen denean?
   - Zergatik polita dela eta oso ondo gelditzen zaionaren itxura egiten du?
   - Herriko jendeak ere zergatik trajea ikusten dutenaren planta egiten eta enperadorea txalotu egiten dute?
   - Azkenean nor ausartzen da gezurrari aurre egiten eta egia esatera?
   - Enperadorea izan bazina berdin jokatuko zenuen? Zergatik?
   - Eta desfileko umearen kasuan, zer egingo zenuke? zergatik?
4. Orain kartela begiratuko dugu. Arreta irudi errealetan jarriko dugu, ez ispiluan agertzen direnetan:
   - Emakumearen irudia deskriba ezazu
   - Gizonaren irudia deskriba ezazu
   - Arruntak egiten al zaizkizu?.
   - Etxean eta inguruan horrelako irudiak errepikatzen al dira?
5. Orain ispiluan agertzen diren irudietan jarriko dugu arreta
   - Errealitatea islatzen dute?, Zergatik?
   - Zer desberdintasun daude?
   - Ulertzen al duzu kartelaren leloa: “ustezko berdintasuna” ?
   - Horrelako zerbait gertatu al zaizu inoiz? Azaldu ezazu
   - Zure inguruan, pelikularen edo telesaioren batean antzerako zerbait ikusi al duzu inoiz? Azaldu ezazu.
6. Bukatu eta gero ikasleak bikoteka jarriko dira eta bikotea marrazteko eskatuko zaie, irudia ez da zertan oso zehatza izan behar, baina bikotekidearen gehien gustatzen zaien ezaugarria azpimarratzeko eskatuko zaie.
7. Ondoren marrazkiak elkar trukatu eta azalpenak emateko eskatuko zaie.
   - Marrazkian islatuta sentitzen al zara?
   - Esandakoarekin ados al zaude?
   - Zure buruari buruz bikoteak aipatu ez duen zerbait azpimarratuko al zenuke?

BIGARREN HEZKUNTZA: Irudi distortsionatuak

Garapena:

1. Irakasleak steilaseko kartela ikusgai jarriko du eta aurreko saioan ateratako ondorioak berreskuratuko ditu.
2. I Eranskineko irudiak ere ikusgai jarriko ditu eta eztabaida bultzatuko du.
   - Zer daukate irudi guztiek komunean?
   - Zer egoera desberdin islatu nahi dute?
   - Horrelako egoerak ezagutzen al dituzu?
   - Noizbait horrelako zerbait bizi//sentitu al duzu?, edo ingurukoek? konta al dezakezu??
3. Bukatzeko kartelera bueltatuko gara
   - Zer desberdintasun daude kartelean agertzen diren emakume eta gizonen artean?
   - Eta bere islen artean?
   - Egoera erreala dela uste al duzu?, zergarik?
   - Kartelaren esanahia ulertzen al duzu?
   - Horrelako errebindikazioa egitea bidezkoa dela uste al duzu?, zergatik?

Ustezko berdintasunari aurre egin

LEHEN HEZKUNTZA

Materialak: Papera, margoak, artaziak, II eranskina eta III eranskina.

Denbora: Hiru saio.

Taldekatzea: Bakarka, talde txikiak, talde handia.

Lehen saioa: Nork egiten du zer?

Deskribapena:

1. Irakaslea familien aniztasunari buruz mintzatuko da eta ikasleei euren etxean bizi diren nagusiak 3Dan marrazteko eskatuko die.
2. Behin marrazkia amaituta irakasleak II eranskinaren fitxa erakutsiko die, eta bertan agertzen diren gauzaz eta haien erabileraz galdetuko die.
3. Ondoren, gauza haiek mozteko eta gehien erabiltzen dituzten pertsona nagusien inguruan itsasteko eskatuko die..
4. Behin amaituta, irakasleak familiako txikienak marrazteko eskatuko die baita itsatsi duten gauzekin erlazionatzeko ere.
5. Amaitzeko, ikasle bakoitzak talde handian lana aurkeztuko du bere familiari buruz nahi duena azalduz. Klaseko kortxoan lan guztiak eskegiko dira.

Bigarren saioa:

Deskribapena:

1. Saioa hasi baino lehenago, irakasleak ikasleei III. eranskinaren koadroa aurkeztuko die familiaren laguntzarekin etxean osatzeko.
2. Arbelean ondorengo kontzeptuak idatziko ditu eta talde handian hitz haien inguruan dakitena komentatuko dute. Irakasleak honi buruzko ikasleen balizko okerrak argituko ditu.
   - Ordaindutako etxetik kanpoko lana
   - Ordaindutako lana etxe barruan
   - Etxeko lana
   - Denbora librea
   - Zaintzako denbora

Hirugarren saioa:

Deskribapena:

1. Behin ikasleek III. Eranskina ekarrita, irakasleak, talde handian, ondorengo taula beteko du arbelean:

ASTEKO ORDUAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	NESKAK	MUTILAK
ETXETIK KANPOKO LANA ORDAINDUTA				
ETXEAREN BARRUKO LANA ORDAINDUTA				
ETXEKO LANAK				
ZAINTZAKO DENBORA				
DENBORA LIBREA				

2. Ondorioak aterako dira:
   - Nork ematen du denbora gehien zaintzako lanetan? eta etxeko lanetan? eta denbora librean?

BIGARREN HEZKUNTZA

Materialak: Arbela, II Eranskina, Internet, berdintasun legea.

Denbora: Bi saio.

Taldekatzea: Banaka, talde txikia, talde handia.

Lehenengo saioa: Berdintasun legea

Garapena:

1. Saioa hasi baino lehen, irakasleak ikasleei berdintasun legea zer den dakiten galdetuko die: sorrera, beharra, zer arautzen duen, zergatik egin zen … ezagupenik izango ez balute azalduko du.
2. Talde handian jarrita legearen "zioenen azalpena" irakurriko da eta komentarioak, iritziak jasoko dira. (4/2005 LEGEA otsailaren 18koa. EHAA 2005eko martxoak, 2 asteazkena)
3. Ondoren, gela lau taldetan banatuko da eta talde bakoitzari Berdintasun Legearen artikulu bat egokituko zaio, baita II eranskina non artikulu horrekin lotutako errealitateari buruzko datuak ematen diren.
4. Legea eta errealitateari buruz hausnartzeko eskatuko zaie.
5. Bukatzeko talde handian komunean jarriko dira talde txikietan ateratako ekarpenak eta ondorioak.
6. Ondorioak aterako dira:
   - Zure inguruan ezagutzen al dituzu horrelako egoerak bizi dituzten pertsonek? Zure familian, lagunen artean ,..
   - Datu hauen inguruan berririk ba al zenuen? Nola jakin duzu? Telebistaren bidez, prentsa, entzundako jendearen komentarioen bidez, ikastetxean, etxean,...
   - Honelako egoeraren bat islatzen duen serie edo pelikularen bat ezagutzen al duzu. Azaldu pixka bat.
   - Legeak esaten duena ikusita. Zer iruditzen zaizu? Legea betetzen da? Legea betetzen ez bada zer egin daiteke?
   - Horrelako legeen beharra ba al dago?
   - Institutuan berdintasuna existitu eta errespetatzen dela uste al duzu? Zergatik bai, zergatik ez?
   - Eta etxean?, auzoan? Koadrilan?
   - Institututik zer egin dezakegu gizon eta emakumeen arteko berdintasun erreala lortzen laguntzeko?
   - Antzerako legerik ezagutzen al duzu?

(Datuek gizon eta emakumeen arteko berdintasun erreala ez dela lortu adierazten digute, oraindik egiteko asko dago. Horregatik borrokatzen eta berdintasuna aldarrikatzen jarraitu beharko dugu)

Bigarren saioa: Berdintasuna erreala

Garapena:

1. Aurreko saioan ateratako ideia eta ondorioekin horma-irudiak, ipuinak, komikiak, argazkiak edo antzerkiak idatziko dira.
2. Institutuko pasilloetan, geletan… jarriko dira edo kideei kontatu edo antzeztuko zaie.

EBALUAZIOA

Kartelarekin landuko den lehenengo jarduera hasierako ebaluaziorako erabiliko dugu. Modu horretan emakume eta gizonen arteko berdintasunarri buruzko gure ikasleen ezagutzaz onartuko gara eta indarra non jarri jakingo dugu,

Unitatea lantzen den bitartean etengabeko ebaluazioa egingo da, besteak beste, behean aipatzen diren teknika eta tresnak erabiliz.

Unitatea bukatzean berriz ikasleen lana baloratuko da markatutako irizpideak jarraituz. Ikasleek ere beraien auto-ebaluazioa eta unitatearen ebaluazioa egin dezakete.

Bestalde, jarduera bakoitzaren bukaeran jarduera beraren ebaluazioa egingo dugu, zerk funtzionatu duen, zerk ez, nola antolatu dugun gela, denbora, ikasleak motibatuta egon diren…guzti hau, behar izanez gero, hurrengo jarduerarako praktika egokitu eta unitatearen bukaeran ezarritako helburuak bete ahal izateko.

Ebaluazio irizpideak:

- Ea errealitatearen azterketa kritikoa egiten duen.
- Ea gizartean ematen diren aldaketen kontzientzia hartzen ari den.
- Ea emakume eta gizonen arteko berdintasunaren garrantziaz konturatzen den: lan banaketa, soldatak...
- Ea berdintasunean aurrerapen edo atzerapenak egiteko jendartearen eraginaz ohartzen den.
- Ea emakume mugimenduek giza garapenerako izan duten garrantziaz ulertzen duen.
- Ea jardueretan parte hartu duen.
- Ea gaia ikuspuntu kritikoarekin ikusten hasi den.
- Ea errespetuz jokatu duen besteen iritziekiko.

Ebaluaziorako teknika: Behaketa.

Ebaluaziorako tresnak:

- Irakaslearen egunerokoa
- kasle bakoitzaren historiala. Bertan unitatearen garapenean zehar bakoitzaren lanaren balorazioa zein ekarpenak jasoko dira
- Egindako lanak.

Ikasleen ebaluazioa unitatearekiko: Elkarrizketarako gidoia.

- Zer da gehien eta gutxien gustatu zaiena eta zergatik.
- Zer da ikasi dutena.
- Zerk harritu ditu gehien.
- Zer aldatuko luketen.

BALIABIDEAK

- https://www.youtube.com/watch?v=llad8F1a5YU El espejismo de la igualdad
- https://www.youtube.com/watch?v=Z02kN9qyoNg Caricatura de los roles de genero
- http://www.rtve.es/alacarta/videos/la-noche-tematica/lnt-feministas-040315/3025701/ ¿Quién quiere ser feminista?
- https://abarquin.wordpress.com- (denetarik, pelikulak zein liburuen kritikak, artikuluak…)
- "Hezkidetza da Bidea" **steilas**ek argitaratutako karpeta
- https://youtu.be/ln_Guma-ih4 "Enperadorearen traje berria"
- "Algunas reflexiones sobre los estereotipos" Turín Adela, Ed Horas y Horas

Pelikulak:

- **La fuente de las mujeres"** Radu Mihaileanu

Liburu eta Ipuinak

- "Qué guapa eres Plu" Dumbai Polly, Ed: Kókinos
- "Cuentos infantiles políticamente correctos" Fimm James, Ed Circe
- "Todo cambió con Jacob" Kirsten Boie, Ed: Alfaguara

Ustezko berdintasunari aurre egin

ERANSKIN I

II ERANSKINA

Ondorengo objektuak moztu eta gehien erabiltzen dituzten etxeko helduen ondoan erantsi.

III ERANSKINA

Familia osatzen duten pertsonek etxeko lan desberdinei dedikatutako orduak

LANAK	HELDUAK DIREN ARDURADUNAK				ADIN TXIKIKOAK
Asteko orduak	**Izena / zer senidea den**	**Izena / zer senidea den**	**Izena / zer senidea den**	**Izena / zein den**	**Izena / zein den.**
Hautsa garbitu					
Erosketak egin					
Janaria prestatu					
Arropa garbitu, zabaldu eta lisatu					
Etxeko gauzak konpondu					
Kotxea garbitu					
Aspiradora pasa					
Lurra garbitu					
Mahaia jarri					
Medikura lagundu					
Zaborra atera					
Ordenagailuan ibili					
Liburu bat irakurri					
Mugikorra erabili					
Telebista ikusi					
Ipuin bat kontatu					
Egunkaria irakurri					
Etxetik kanpo lana ordainduta egin					
Etxean lana ordainduta egin					
Ordaindutako lana orokorra					
Etxeko lanetarako denbora orokorra					
Beste pertsonak zaintzeko denbora orokorra					
Aisiarako denbora orokorra					

IV ERANSKINA

BERDINTASUN LEGEA DIOENA ETA ERREALITATEAREN HAUSNARKETA

BERDINTASUN LEGEA	SOLDATA	PENTSIOAK	IKASKETAK
36. Artikulua. Tratu- eta aukera-berdintasuna, dela enplegua lortzean, prestakuntzan eta lanbide-aurrerakuntzan, dela lan-baldintzetan	% 26 aldea emakume eta gizonen artean (Euskal Herrian) azken datuen arabera	Media al mes Emakumeak: 878 € Gizonak: 1292 € (hilabetean)	Lanbide Heziketa: Elektrizitatea, Mekanika, Egurra eta altxariak, neskak%8 Irudi Pertsonala: %90 Unibertsitatea: Gizarte eta Osasun Zientziak:%70 neskak Ikasketa teknikoak:%27
	FIKZIO TV	**PUBLIZITATEA**	**TELEBERRIAK**
26. artikulua. Berdintasuna titulartasun publikoko gizarte-komunikabideetan	%20,9 emakumeak etxeko lanetan %3,4 gizonak etxeko lanetan	Mezu sexistak Estereotipoak	Emakumeak berrietan: denboraren %24 Gizonak%76
	LANA	**ENPRESA HANDIAK (Ibex 35)**	**LANGABEZIA**
38. artikulua. Emakumeen enplegagarritasuna hobetzeko programak emakumeen partaidetza gehitzeko eta berdintasun eragingarrian aurrera egiteko	Emakumeak ordaindutako lanean:%54,80 Gizonak lanean:%77,02	Lehendakariak: %2,86 Lehendakariordeak: %2,44 Aholkulariak: %3,69 Idazkariak:%0	Emakume langabetuak: %25,1 Gizon langabetuak: %19,3
	ZAINTZAK	**LANUZTEAK**	**LANALDI MURRIZTUA**
47. artikulua. Norberaren, familiako eta laneko bizitza uztartzeko eskubideak	Seme alabak zaintzeko baimenak Emakumeak: %94,8 Gizonak: %5,2 Zaharren zaintza: Emakumeak: %84,1 Gizonak: %15,9	Lan merkatua uztea zaintzagatik: %93,20 emakumeak Amatasun baimenak:%98 emakumeak.	%80 Emakumeak